(1)

+

# Lizardi eta Eusko-elerti Edestiya 1933

Eusko-elerti edestia iru aldi luzetan zatitu leiteke nere eritxis. Lenengo aldiko esi barruan sartu diteke Bernard Detchepare'gan-ñoko elerkaleak; au da, amaseigarren gixaldira artekoak. Ez-eben ezer idatsi elerkale oneik; idastea bearrekoa al-da elertia ixateko? Edertasunaren agerpen bat da elertia, adimenaren emaitz bat. Ez da bearrekoa idastea; edertasun ori idastekoa be ixan leiteke. Eta aldi aretako elertia ezagutu gura ba-dogu baseritarrengana goazen. Ez alperik idasteguirik astindu. Baseritarren buruetan aurkituko ditugu aldi aretako elerkaleen lanak. Gure baseritarrak Eguberrietan, Urte-barrietan, Agate Deunaren egunean eta "San Juanetan" abestuten dituezan olerkirik asko aldi-aretakuak dira. Orduko olerkari edo elerkaleen izenik ez dogu jakingo. Baña, ba-ditugu euren lorotzak, ezagutzen ditugu euren lanak (zati bat beñepein), eta lan edo lorotz oriek argi eta garbi adierazoten deuskube nolakuak ziran elerkale eta olerkari areik.

Bigarren aldia amaseigarren gixalditik ogeigarrenerañokua da. Etchepare'gaz asi eta Arana Goiri'tar Sabin'en aldira etorten da. Ezagunak dira aldi onetako elerkaleak. Sarasket Etchepare'ko seme Bernard'ek asten dau lero. Eusko-semeak euzkereagaz astu eta frantzeraz eta gazteleraz idasten asita egozan orduko, para-para. Euzkeraz idasti bat be eztan argitalketan. Euskotarrak eurak eta euren etxean erail biar ebela euzkera esan leikian. Baña, Jaunak ez eban gura-ixan. Bernard, euzkera piztuko ebatena, jayo da; kosfundu be bai. Gixondu da. Beste ele edo izkuntzak beste badaki euzkera ulertu dau.

(2).

Heuskara, jalgi adi kampora!

Heuskara, habil munduguzira!

Lanak ez dau atzeratzen; sasi eta traba asko igaro biarko ditu. Beti aurera. Edozer egingo dau euzkera zabaldu eta indartutearren. Eta bere lana ikusiagaz alaitzen da.

"Orai dute ikhasiren nola gauza hone zen"

"Euskaldun den gizon orok alxa beza burua!
Ezi huien lengoaia izanen du floria."

"Heuskara da kampora eta goazen denzara!"

Yzan ~~eta~~ euzan jarraitzaleak. Etchepare'k ereindako azi dana etxan galdu. Lur mamintsuan be jausi zan. Ori emen Leizaraga. Matere, Atxular'en ikaslea, Joanes Etcheberi, Oihenart, Pouvreau, Gasteluzar, Chourio, Larramendi, Mendibusu, Kardaberaz, Ibaranedar, Lareguy, Baratciart, Olaetxea eta abar euzko-elertzale jator-jatorak. Baña aldi metako elertzale onena, gorenguena eta jatorena Urdazubi'ko semea, Atxular, agurgaria da. Gizon jakituna, ikastolak askotan ibilia. Bere jakitun entzutea garbi darakusgu euzkotaren artean zabal ebilan ipuintxo batek. Txerenek ei-eban aldi aretan Salamanka'ko leza-zulo baten ikastola entzutetsu bat. Ikasgai gustiak urtebeteren barruan erakusten ei-ebazan. Baña urtea igarotakuan berak eskatzen ebana ordaindu biar zan. Atxular anayak ikastola onetara juatia erabagi eben. Igaro eben urtea eta Txeren'ek anai bata ordaintzat eskatu eban. Bietatik bata leza-zuloan Txeren'en morroi geratu biar zan. Gure Kepa bera geratu zan. Urruña eralgitea zan bere egin-beera (egindegiña). Baña, ain jakitun eta azkarra zan gure Kepa! Galbayari etzbetan erakutsi eutsan.

(3)

Izeren'ek ondo ezagutzen eban bere moroya eta bada-ezpadan sarritxo dei egiten eutsan. "Atxular"

-"Atxular"-

-"Emen nago Jauna"-

Goiz baten gure Atxular'ek galbayari aginddu eutsan Izeren'en dejari beratu erantzuteko. Eguzkiyaren argia leza-kuloraño elduten zan. Utzi galbaya eta urten zan Atxular.

-"Atxular"-

Eta galbayak -"Emen Jauna"-

Izeren'ek oningoan susmo txarra artu dau, eta bada-ezpada Atxular egiñ ete dan ikustera dator. Atxular leza-zuloko sarreran eguzan orduko. Arrapatuta or dator Izeren gure Atxular'en billa. Baña,..., leza-sarreran Atxular artzen ebalakuan bere itzal edo keriza eldu eutson eta orá or,... ordutik Atxular gurea kerizea barik.

Idasti eder eta txukun bat egin'eban. "Gero" da bere izena. Edozelako gayetarako euskerak egokitasuna, ondo ezagutu eban. Baita euskotarren eriña be. Ala diño bere idastiko itzaurrean "Baldin egin balitz euskeraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantsesez edo berthe erderaz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta kumplitu izanen zen euskera ere eta baldinbalakoz ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskerak" ¿Zer esango dogu Atxular'en gañean? Eritzirik egokiena Pierre Lafitte'Jaunarena deritzaut "Gure gorespen guziek baino hobeki, haren irakurtzeak erakutsiko dauku nolako mintzaire bizi, samur, nasai, gozo, choragarria zerabilan" (Eskualdunen Loretegia.)

Irugarren aldia Arana Goiri'tar Sabin'ek asten dau. Euskera goraltzeko eta jakitun edo jakintsuak beste edozein izkuntzak beste

(4)

balio ebala adierazoteko Etchepare sortu eban Jaungoitkua'k ~~amarigarren gixaldian~~ eusko dertiren bijaren aldian.

Emeretzigarren gixaldian ez bakarik euzkera, euskeratun eusko-abenda be ilzorian aurkitzen da. Euskera ilten bada euzkera (abenda) be ilgo da, eta eusko-abenda ilten bada euskera be bai

(1839. garren urteko zauriak azkenak eragin biar eutsozala esan egi-an eusko-abendari eta euskerari be bai.

¿ Nun dira antxiñako euskotar urdun-euskaltzaleak? Iñoren bustarririk euren kokotetan iñoiz izan ezeben areik zertan ari dira? Atzeritarren orpe lapurik ez al-dabe ikusten? Aberriaren askatasunagaitik alai eta abesten euren bizitza emoten eben euskotarak nun ditugu? Lo-emoleen bat (narcótico) artu ete dabe 1839'ko zauria ez nabaiteko? Guda-irrintzirik ez da entzuten eusko-mendietan; lo-zorioan dagoz guztiak. Lo-zoro orietatik iñosk itzartuten ezpaditu, betiko galduko dira ¡Agur anei eta anei urte mendiontan izan diranak, agur! ¡Agur Roma'ko Erpuruak eta Aprika'ko balkak, zenbat bidar goitu ebezan gudariak! ¡Agur eusko-abenda onetsia! ¡Agur ludiko irrintzarik ederena! ¿Betiko galduko zara? ¿Hain bare-bare eta zotingabe ilgo da eusko-abendea?

Ez, ez da ilgo. Itzartuko dira euskotarak. Eusko-mendietan guda-irrintzia entzun da.

Jagi, jagi euskotarak)

Esker'ak Sabin'i. Itzartu dira euskotarak. Ari dira lanean. Eusko-piztundia geruago ta gartsuago da. Aldi barri au, len esan dogun letz, Arana Goiri'tar Sabiñ'ek asten dau. Berbera dogu aldi oneteko lenengo olerkaria. Jarraitzale asko sortu dira. Aldiskunguyak

(5)

~~asterotuak eta ipuingiñak~~ geituaz doyaz.

Iragaren aldian, ~~be~~ osteran, Arana Goiri'tar Sabin. Eta Arana Goiri'tar Sabin'en jarraitzaleen artean be badogu Atsular bat. Lizardi da olerkale eta olerkari gorengo au. ~~Arana Goiri'tar~~ Sabin'ek eratutu eutson bere izkuntza.

Berberak diñostu olerki polit baten.

"Il zârgi, bizi dogun gizona!
Egunoro berpiz lurpean doguna!
Bezat onets aren izena,
Aberiz eta mintzoz gu yantziarena...."

\+ + + + + +

1896. garren Iraillaren 18'an jayo zan Zarautz'en Agire'tar Josebe Miresna. 1906 garrenian Tolosa'ira juan zan bizi izatera. Eta ~~Abokatz~~ Lege-ikas ikastarrak 1917. garren urtian amaitu zituan Madrid'go Ikastola Nagusian.

Eta 1923. garrenian Errazgire'tan Pantxeske'gaz eskondu zan.

Ikasle zintzua. Gizon on eta kistar egizkoa. Ogeitamasei urte dituen oindiño, Loreilaren 12.an il jatun Lizardi.

"Otoitz egin, zerura nadin" ziñoten il baño apurbat aurreratu ago, bere oge-aurrean egozan laguneri. "Nik donoria nai det, Jauna emutia zatzidas"

Eta bere kutontxuak besarkatuorik eta eusko-oturaz onetsirik "Ene kutonoik, agur, on-onak izan...." Eta bere emastea "Zerura arte" esanik agurtu eban. Bere ama matekak lagundu eutsan azkenengo aldian. "Seme, esan Jesus...." eta Josebe Miresna bitxekoak esaten eban "Josu, Josu, Josu...." Ta au españetan ebala il zan.

Lizardi'ren lana

(gaztelerar) Zonbaier, beste euskotarrok letz, Lizardik be ikas-

taroak egin bear izan zituan. Euskera oso-osorik uja aiotu ja-fun. Jamala, baña egi gaiatza. Guri be osi jaso jatu. Eta Lizardi'k leki, ezdogu gura ezagututerik geure erria (eri dana ezda guria). Gogotik eta sutsu asi zan Lizardi euskera ikasten. Bilbao'ko Euzko-Gastedia'k argitaratzen eban "Euzko-Deya"rako izan ziran bere lenengo apurak. 1916 garenian asi zan idasten.

Idaslea ezan bakarrik, margolaria be bai: 1916. garen urtetik 1917. garenera egin ebazan idasti, olerki eta margolak "Kopeveguerò" izenpurutzat darvian inguriasti bat beteten dabe. Euskeraztuoak eta gazteleraztuoak dira ingiriasti orietan aurkiten diran lanak.

"Naste-Boraste" zeritzaion inguriasti barri bat idasten asi zan 1917. garen Loreilaren 18'an. Euskeraztuak dira inguriasti onetako lan guztiak. Margolaritzari itxi deutsa. Pitinga-pitinga eta apurka-apurka idasten ikasten dau.

Eretundoko Lengoaia'k akerata aundia eragin eutsan euzko-olerti pizkundiari. Baña eskerak irù edo lau euzkeltzale bizi eta zintzoeri, 1926. garen urtean euzko-olerti pizkundia biziten asi zan. Eta urte-orietantxe Elgoibar'en eratu eben euskel-jai eder bat. Mokiku'n eta Arasate'n egin ziran urengo urtean beste euskel-jai bi. Arasaten Bazkun barri bat sortu zan: Euskaltzale-Bazkuna. Ori dogu Lizardi be. Larramendi Aitaren omenaldian, Errenteri'ko Bergara'ko eta Segura'ko Euzko-olerti gayetan buru da.

Aldi onetan euzkeraz eta erderaz asko idatzi eban. "Kirikiño-Saria" berak eratu eban. Lanak ez dau ikaratzen. Auriera beti Gipuzkoa'ko Euzko-Olerti Pizkundeko burua bera da.

<u>Lizardi Olerkaria</u>. Euzkeraz mintzateko eresteasun apur bat

(7)

, daben ezkero olerkari dogu. Gazte-gaztetatik izan eban berebaiñan abesteko, olerkiak egiteko gogua. Berberak diñosku. Gogua bai; baño nola bere baiñuko oldozkun eta asmoak azaldu ezetzian. Eta lentxuago aipatutako olerkian diñuan letz, gizun goralgarri bateek, lurpean bizi dan bateek, erakutsi eutsan bere oldozkayak abesteko eta. Arana Goiri'tar Sabin'ek. Ogei urte dituala eta "Euzko-Deya'n" agertzen da olerkari.

Ez da izan gure Lizardi olerkari ugaria; gitxi egin ditu baña eurek onak.

Bere olerkiak ondo egiteko ardura aundia izaten eban beti. Sortuan barri eta berekoiak janztu edo soñeko bariakin bilatzen zituan.

Aitzol'ek diñuan letz, olerkari ugaria izatea baño, olerkari barria, berezia eta autua, akatzbakua izan gurago eban.

1931, garren Tolosa'ko Euzko-Olerki sariketan bera izan zan txapeldun. "Urte giroak ere bezian" olerkia (onenkat artu zan). Baharik olerki auxe gatik, besterik ezpalau be, euzko olerkaririk onena Lizardi dala be esan daben olerkalariak ba-dira. Orduantxe "politika" eta abar alde batera lagata, olerkigiñan igaro ditu bere bizitzako urte biak. "Biotz-begietan" idaztia argitaraldu ondoren, "Maite" izentzan olerki bat egiten ari-zan. Ogein-bat ori egiñda il da.

Beste bere asmo edo ametz bat be badaratuzgube bere olerkiak. Euzko-izakera eta euzko-gogoagaz bere olerkiak betegen.

Euzkotaren artean ez da ezagutzen mintzuntaririk (sentimentalismo). Ez dogu esan gura euzkotarak ez daukela biotzik; ez dabela miñik ez matazunik. Esan gura dogu ez dirala "tirapuryak"; biar danian eta biar dan beste negar egiten dabela; negar egiteko erreka eta irtziriz ez dirala asten. Lizardi'ren olerkietan argi agiri da au be.

(8) Ikak be ondo neurtuak ditu. Beste aberi batzuetako olerkariak lako itz-ugaritasunik ez dogu aurkituko gure olerkari onetan: Labilkanak egotiak dira "Es el poeta del laconismo en la forma y de la densidad en el pensamiento y en la imagen" diñostu olerkale bateti. Lizardi ez da ibilten lañuetatik, iratsirik izati bano. "Con su brevedad persigue la concreción. Es... el vate de lo definido"

Ogi bigunari, ogi biguna eta ardo gozuari ardo gozua deiten deutsa. Berak dabilzan irudiak euskotarenak dira, bereziak. Batian basoa, itsala; gastetasuna bestian. Yrakurri egizuez bere "Aldakeri" "Neskatx-urdin jantzia" "Zuaitz etxana" "Udte giroak" "Asaba zaren baratza" Yrakurri bere olerki gustiak. An ikusiko dozuez ainbat irudi polit.

Bere olerkietan ez dogu aurkituko ez "zafiros" ez "perlas de Ormuz" ez "corales de Capri", ez "rubies". Onetariko gauzarik iñoz be ikusi ezaren beste olerkietako olerkariak, or ebaliko ditubez gora eta bera.

Yrudia eta oldozkuna biak alkarekin dabiltz beti Lizardi'k.

Olerkari aundia, euzkerak izan dabenik aundiena noizpait.

"Zarautz eta Tolosa, Euzkadi osoa....
Goruntz jaso biotzak ta alaitu gogoa:
lagun bat geigo gaur gute Jaunaren aurrean
bultzagai bat Euzkadi'k zorion-bidean." (Itxas ki-renak)

Aitzmendi: Arieta'tar J. M.ª

1933'gn Abenduaren 20-an